

Gipuzkoa da industri sektorean eskualdeen arteko oreka handiena izan duen lurraldea

Euskal Autonomia Erkidegoko hogeitaz eskualdeetatik bostek EAEko industriako pertsonal okupatuaren eta balio erantsiaren bi herena dute

Eustatek 2004. urterako EAEko industria eskualdeen arabera aztertu du eta lan horretatik lortutako datuak kontuan hartuta, Gipuzkoa da eskualde mailan oreka handiena duen lurraldea. Gipuzkoan, eskualdeetako industria kopurua beste bi lurraldeetako baino askoz txikiagoa da. Bere zazpi eskualdeetatik bostek Gipuzkoako industri kopuru osoaren %10 baino gehiago dute, bai pertsonal okupatuari bai balio erantsiari dagokionez. Eskualdeak, industri kopuru handiena dutenetatik txikienera sailkatuta, hauexek dira: Donostia-San Sebastián, Debagoiena, Goierri, Urola Kosta eta Debabarrena.

Beste aldean Arabako lurralde historikoa dago. Lurralde honetan, industriako balio erantsiaren ia bi herena (zehazki %63,5) Arabako Lautadan dago; Arabako Mendialdean edo Arabako Ibarrean, aldiz, %0,5 eta %3,9 daude hurrenez hurren. Beste hiru eskualdeetan –Kantauri Arabarra, Arabako Errioxa eta Gorbeialdea- %12,9, %11,0 eta %8,1 daude hurrenez hurren.

Bizkaian, industriak agerpen handia du eskualdeetan. Industriaren %82,0 eskualde bitan pilatzen da: Bilbo Handian (%61,9) eta Durangaldean (%20,1). Bestalde, gainerako eskualdeetako batek ere ez du lurraldeko industri jardueraren %5,0 hartzen. Industria aldetik garrantzia duen hirugarren eskualdea Plentzia-Mungia da, lurraldeko industriaren balio erantsiaren %4,8arekin.

Bilbo Handia, Arabako Lautada eta Donostia-San Sebastián eskualdeek Euskal Autonomia Erkidegoko industriaren balio erantsiaren erdia baino gehiago dute (%50,7) eta, horrez gain, EAEko industrian lan egiten duten pertsonen %47,3 ere badute. Industria duten eskualdeen artean horien atzetik dauden Durangaldea eta Debagoiena kontuan hartuz gero, balio erantsia %66,6 da eta pertsonal okupatuak %64,3 dira, hau da, bi magnitudeetan industria osoaren ia bi herena bi eskualde horietan dago.

Euskal Autonomia Erkidegoko industriak %9,1eko hazkunde nominala izan du 2004. urtean eta batez besteko hazkunde-tasa hori Arabako sei eskualdeetako lauk gainditu dute: Arabako Errioxa (%29,1), Gorbeialdea (%21,8), Arabako Ibarra (%16,2) eta Arabako Lautada (%14,0); gainerako eskualdeek, hala ere, balio positiboak izan dituzte. Bizkaian, soilik bi eskualdek gainditu dute batez bestekoa: Bilbo Handiak (%9,8) eta Enkarterriek (%9,3); Gernika-Bermeo eskualdeak %1,3ko murrizpena izan du. Azkenik, Gipuzkoan bi eskualdek gainditu dute batez bestekoa: Goierriko balio erantsiak %21,4ko hazkundera izan du eta Deba Garaikoak %9,4koa. Lurralde honetan, gainera, Debabarrenak %-0,8ko murrizpena izan du.

Pertsonal okupatuak 2004. urtean izan duen bilakaera neurritzat izan da, %0,9ko hazkundearekin. Arabako Lautadak izan ezik, Arabako eskualde guztiek izan dute bilakaera positiboa. Gipuzkoan, soilik Tolosak izan du 2003. urtean baino industria

gutxiago. Bizkaian, lau eskualdetan murriztu da industriako enplegu kopurua: Arratia-Nerbioi, Bilbo Handia, Markina-Ondarroa eta Plentzia-Mungia.

Pertsonal okupatua eta balio erantsia industriako faktore-kostuaren eta eskualdearen arabera. 2003-2004. Mila eurotan.

	Pertsonal okupatua (kopurua)			Balio erantsi gordina, faktore-kostuan		
	2003	2004	Δ 04/03	2003	2004	Δ 04/03
EAE	248.922	251.179	0,9	13.371.649	14.588.107	9,1
Araba	49.019	49.605	1,2	2.747.477	3.163.954	15,2
Arabako Ibarra	1.953	2.009	2,9	106.061	123.291	16,2
Arabako Lautada	31.912	31.866	-0,1	1.763.392	2.010.389	14,0
Arabako Mendialdea	294	324	10,2	14.211	15.434	8,6
Arabako Errioxa	4.042	4.255	5,3	270.594	349.203	29,1
Gorbeialdea	3.949	4.182	5,9	210.776	256.697	21,8
Kantauri Arabarra	6.869	6.969	1,5	382.443	408.940	6,9
Bizkaia	104.619	104.416	-0,2	5.561.854	6.018.371	8,2
Arratia-Nerbioi	5.021	4.879	-2,8	259.622	262.221	1,0
Bilbo Handia	61.312	60.993	-0,5	3.395.279	3.726.726	9,8
Durangaldea	21.736	22.120	1,8	1.113.048	1.206.729	8,4
Enkarterriak	2.139	2.157	0,8	155.544	170.002	9,3
Gernika-Bermeo	4.612	4.628	0,3	199.627	196.979	-1,3
Markina-Ondarroa	4.056	4.004	-1,3	167.664	169.428	1,1
Plentzia-Mungia	5.743	5.635	-1,9	271.070	286.286	5,6
Gipuzkoa	95.284	97.158	2,0	5.062.318	5.405.782	6,8
Bidasoa Behea	5.602	5.784	3,2	231.525	233.024	0,6
Debabarrena	10.643	10.732	0,8	482.471	478.485	-0,8
Debagoiena	20.091	20.537	2,2	1.013.516	1.109.205	9,4
Donostia-San Sebastián	25.508	25.963	1,8	1.591.077	1.662.224	4,5
Goierrri	13.233	13.761	4,0	682.139	827.881	21,4
Tolosaldea	8.185	8.131	-0,7	442.768	450.386	1,7
Urola Kosta	12.022	12.250	1,9	618.822	644.578	4,2

Iturria: Eustat

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elektronik.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Patxi Garrido Espinosa

Tel:+34-945-01 75 80 Faxa:+34-945-01 75 13

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es